

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 2024ko errolda jendaurrean jartzea eta kobratzeko aldiari ekitea

Behin-behineko onespena eman zaio hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 2024ko erroldari, eta jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunetz, interesa dutenek aztertu eta egokitzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onetsitza joko da, eta kobratzeko aldiari ekingo zaio.

2024ko irailaren 1etik azaroaren 1era bitartean, bi egun horiek barne, egun baliodunetan, hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 2024ko ordainagiriak ordaindu ahal izango dira borondatezko epean.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek, ordainketa helbideratuta ez badute, Arraia-Maeztuko Udalak Maeztuko banku erakundearen duen kontuan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, epe horretan. Ordaindu aurretik, zergapekoek udal bulegoetan jaso beharko dituzte ordainagiriak, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara.

Zergadunei gogorarazten zaie banku erakunde edo aurrezki kutxetan helbideratuta egin dezaketela ordainketa. Helbideratuta dauden ordainagiriak banketxeetan kobratuko dira, 2024ko irailaren 30ean.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bide administratibo abiaraziko da, hala xedatzen baitu Zergabiltzetarako Araudi Orokorrak, eta kobratu beharrekoari legez ezarritako erre-kargua ezarriko zaio eta, hala badagokio, berandutze interesak eta sortzen dituen kostuak ere bai.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Maeztu, 2024ko apirilaren 15a

Alkatea

M^a GEMMA RAMOS FERNANDEZ